

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabide mota asko daude, baina guk behar ditugun elementu garrantzitsuenak hauek dira, gure proiektuak funtziona dezan:

Baliabide fisikoak hauek izango dira; gure proiektuak aurrera egin dezan, eraikin bat erostea pentsatu dugu eta horrela aurrerago ikusten badugu proiektua ondo doala ahalko genukeena egin da: beste eraikin bat egin edo erosi eta horrela diru gehiago lortuko genuke. Eraikina hainbat solairutan banatzea pentsatu dugu eta horrela, gelatan sakabanatuta egongo dira gure lokalak alokatzen dituzten pertsonak. Solairu bakoitzean bi gela egitea pentsatu dugu eta gela bakoitzean pertsona talde batek alokatuko du. Gela barruan ere hainbat elementu fisiko egon beharko dira beteta egoteko eta alokatzeko moduan egoteko. Hainbat altzairu edo mahai ipini beharko ditugu. Horrez gain, telebista eta hozkailuak ere jarriko ditugu.



Baliabide intelektualak eta giza baliabideak, web gune bat irekiko dugu eta hor, lokalei buruz informazioa jarriko dugu, lokaleko arauak, kontaktatzeko telefonoa eta baita lokalak Interneten bidez alokatzeko aukera emango dugu ere.



Finantza baliabideak, hauek izango dira; gure artean, gauza guztiak ordaintzeko dirua jarriko dugu eta diru kantitatea oso txikia bada, bi gauza egitea pentsatu dugu. Lehenengo gauza, mailegu bat eskatzea da baina hau egiten badugu, kontuan hartu behar dugu gero itzuli beharko dugula eta gero bezero asko edukitzen ez baditugu, ezingo dugula bankuari mailegu hori ordaindu. Bigarren aukera; hau da, enpresak gure lokaleko iragarkiak eta lokaleko gauzak (telebista, hozkailua etab) iragartzea eta horrela dirua lortu.

